

2018ILEP0001

ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA 2018

HAUTAKETA PROZESUA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

ALDI BATERAKO 10 LANPOSTU

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO LEHENDAKARITZAK 2018KO URRIAREN 8AN ONARTUTAKO OINARRIAK, ENPLEGUA SUSTATZEKO 2018KO LAN-ESKAINTZAKO LANPOSTUAK BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUA ARAUTZEKO, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK 2018KO EKITALDIAN ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZAK GARATZEKO BIDERATUTAKO DIRU-LAGUNTZAREN ARGITARA.

Urola Kostako Udal Elkarteak 10 pertsona kontratatuko ditu enplegua sustatzeko 2018ko tokiko ekintzen programaren bidez: alde batetik, **eskualdeko guneen mantentze lanak egiteko 8 peoi eta, beste alde batetik, garapen agentziarako 2 teknikari.**

Urola Kostako Udal Elkarteak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren diru-laguntza eskuratu du enplegua sustatzeko 2018ko toki ekintzetarako (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko ekainaren 13ko ebazpena, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2018ko diru-laguntza deialdia egiten duena EHAA 2018-06-20; diru-laguntza emateko ebazpena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko urriaren 3ko ebazpena. Espediente zenbakia R/18-LEP-12G).

Proiektu horretan, besteak beste, enplegua sustatzeko ekintzak aurreikusten dira, hain zuzen ere oinarri hauek arautzen duten hautaketa prozesuaren bidez gauzatuko direnak.

Lan-eskaintza honek beteko ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren 2018ko ekainaren 13ko ebazpenaren bidez argitaratutako deialdiaren baldintza guztiak. Zehatzago esateko, lan-eskaintzaren bidez kontratatzen diren pertsonen ezaugarriekin baldintza hauek beteko dira (pertsona batek baldintza bat baino gehiago bete ditzake):

- 4 pertsona (gutxienez) izango dira emakumeak.
- 3 pertsona (gutxienez) izango dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak. Gainerakoak izango dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren 2018-06-13ko aipatutako Ebazpenaren 2.6.1.2 g) atalean zehaztutako kolektiboren batekoak.
- 2 pertsona (gutxienez) izango dira 55 urtetik gorakoak.

Lehendabizi, beraz, baldintza horiek betetzen dituzten eta hautaketa prozesuaren bidez puntu gehien dituzten hautagaiekin beteko dira lan-eskaintza honetako lanpostuak. Ondoren, eskaintako lanpostu guztiak betetzen ez badira, lan-esperientzian, prestakuntzan eta elkarrizketan edota talde dinamikan eskuratutako puntuen batura hartuko da kontuan.

Enplegua sustatzeko 2018ko zuzeneko kontratazioen programarako 166.086,06 euroko aurrekontu publikoa erabiliko da (horietatik 125.000,00 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatuko ditu eta gainerako 41.086,06euro Urola Kostako Udal Elkarteak).

Ondoren datoz, aurrena, oinarri orokorrak, lanpostu guztienak, eta, ondoren, eranskinetan, oinarri zehatzak, lanpostu mota bakoitzaren baldintza eta oinarri zehatzak finkatzen dituztenak.

OINARRI OROKORRAK

1. DEIALDI HONEN XEDEA

Enplegua sustatzeko deialdi honen xedea da laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegarritasuna handitzea aldi baterako lan-esperientzien bidez, pertsona horien kualifikazioa eta/edo gaitasun pertsonalak eta motibazioa handitzeko.

2. LAN-ESKAINZA: LANPOSTUAK

Hona hemen lan-eskaintza honen bidez beteko diren lanpostuen ezaugarriak:

Teknikari bat, lanpostu berrien perfilak lantzeko:

- Lan-harremana: bitarteko funtzionarioa
- Lan-hitzarmena: Udal Elkarteko langileen lan-hitzarmena
- Iraupena eta lanaldia: 6 hilabete, lanaldi osoa
- Aurreikusitako hasiera data: 2018ko abendua
- Eginkizun nagusia: lanpostu eta enplegu berrien perfilen lanketarako ekimenak (eskualdeko giza kapitalaren identifikazioa eta lanketa; etorkizuneko lanpostuen identifikazioa, perfil berrien azterketa...)
- Ordainsari-maila 12,5.

Enpresa arloko teknikari bat, kultur eta sormen industrien arloko enpresen mapeoa garatzeko

- Lan-harremana: bitarteko funtzionarioa
- Lan-hitzarmena: Udal Elkarteko langileen lan-hitzarmena
- Iraupena eta lanaldia: 6 hilabete, lanaldi osoa
- Aurreikusitako hasiera data: 2018ko abendua
- Eginkizun nagusia: eskualdeko kultura eta sormen industrien arloko enpresa eta profesionalean identifikazioa eta mapeoa osatzea
- Ordainsari-maila 12,5.

Mantentze-lanetako 8 peoi:

- Lan-harremana: lan araubideko kontratua
- Lan-hitzarmena: Udal Elkarteko langileen lan-hitzarmena
- Iraupena eta lanaldia: 6 hilabete, lanaldi osoa.
- Aurreikusitako hasiera data: 2018ko abendua

- Eginkizun nagusia: eskualdeko eremuetako mantentze-lanak egitea (bereziki natura eta familia turismoaren arloko gunetako pintura, lorezaintza eta zaharberritzeak).
- Ordainsari-maila 5.

3. PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK LANPOSTU GUZTIENTZAT

Ondoren zehatzen dira beteko diren lanpostuen hautaketa-prozesuetan parte hartzeko baldintza orokorrak. Lanpostu mota bakoitzaren baldintza zehatzak zehaztuta daude bakoitzaren oinarri zehatzetan.

Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, ondorengo baldintza orokor hauek bete behar dituzte hautagaiak, lan-eskaintza indarrean jartzen denerako:

1. Europar Batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetak herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek 21 urte baino gutxiago badituzte edo gehiago izanik bere kontura bizi badira. Halaber, lan araubideko lan kontratuen kasuan (mantentze lanetako peoiak), parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan egoiliar gisa dauden pertsona atzerritarrek, nahiz eta aurreko paragrafoetan adierazitako baldintzak bete ez. Horietako bat hautatua izango balitz, kontratua gauzatu aurretik egiaztatu egin beharko luke kontratuaren objektu den jarduera burutzeko behar duen administrazio-baimena baduela.
2. 16 urte beterik izatea eta derrigorrezko erretiroa hartzeko adina ez gainditzea.
3. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan alta egoeran inskribatuta egotea, langabe gisa, oinarri hauek onartzen diren egunean (2018ko urriaren 8an).
4. Aia, Getaria, Orio, Zarautz edo Zumaian errolatuta egotea, oinarri hauek onartzen diren egunean (2018ko urriaren 8an). Udal Elkarteak zuzenean dagokion administrazioarekin harremanetan jarrita egiaztatuko ditu kontratatutako pertsonaren errolatze datuak.
5. Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea. Baldintza hori egiaztatu beharko dute kontratua egiteko proposamena jasotako izangaiak, eskatzen zaien unean.
6. Diziplina-espediente bidez administrazio publikoen, organo konstituzionalen edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioen zerbitzura aritzeko bananduta ez egotea.
7. Administrazioan lan egiteko bestelako bateraezintasun edo ezintasunik ez izatea, dagozkion lege-xedapenek ezarritakoaren argitara.
8. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) jasotzaile titularra edo onuraduna izatea edo, gizatalde hauetako batekoa izatea:
 - 8.1. 35 urte baino gutxiago dituzten pertsona langabeak.
 - 8.2. 45 urtetik gorako pertsonak, baldin eta enplegu-eskatzaile gisa gutxienez 6 hilabete eman badute.
 - 8.3. 55 urtetik gorako pertsonak.
 - 8.4. Luzaroko langabeak. Luzaroko langabetzat joko dira kontratatu aurretiko 540 egunetan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa inskribatuta egon eta langabezia 360 egun gutxienez eman dutenak.

- 8.5. Gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten pertsonak. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak eta haien elkarbizitza-unitateko kideak ez ezik, honako hauek ere hartzen dira gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonatzat:
- 8.5.1. Hemezortzi urtetik hogeita hamarrera bitarteko gazteak, adingabeak babesten dituzten erakundeetatik datozenak.
 - 8.5.2. Drogazaletasuneko arazoak dituzten edo bestelako mendekotasun-arazoak dituzten eta errehabilitazioko edo gizarteratzeko prozesuan dauden pertsonak.
 - 8.5.3. Espetxean egonik, beren espetxe-egoeratik enplegu bat eskura dezaketen eta beren lan-harremana uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuaren 1. artikuluan araututako lan-harreman bereziaren aplikazio-eremuaren barruan ez duten presoak, eta baita baldintzapeko askatasuneko egoeran daudenak eta preso ohiak ere.
 - 8.5.4. Preso adingabeak, adingabekoen zigor-erantzukizuna arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio-eremuan daudenak, eta beren egoeratik enplegu bat eskura dezaketenak, eta beren lan-harremana uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuak onartutako adierazitako Legearen Araudiaren 53.4 artikulua adierazten duen lan-harreman berezian aplikazio-eremuaren barruan ez dutenak, eta baita zaintzapeko askatasuneko egoeran daudenak eta preso ohiak ere.
 - 8.5.5. Euskal Autonomia Erkidegoko agintaritzak eskudunek baimendutako urgentziazko bitoki-zentroetan ibili diren pertsonak.
 - 8.5.6. Desgaitasuna dutenak.
 - 8.5.7. Familia-erantzukizunak dituzten emakumeak. Familia-erantzukizunak dituzten emakume deritze beren kargura ezkontidea eta/edo 26 urtetik beherako seme-alabaren bat edo 26 urtetik gorako seme-alaba ezinduren bat edo harreran hartutako adin txikikoren bat dutenei, beti ere familia-unitateko kideen batz besteko banakako errenta %75 baino handiagoa. Agiri bidez behar bezala egiaztatu beharko dira aurreko baldintza horiek.
 - 8.5.8. Genero-indarkeriaren emakumezko biktimak.

Oharra:

Ezingo dute hautaketa prozesu honetan parte hartu 2015, 2016 edo 2017ko ekitaldietan Urola Kostako Udal Elkarteak enplegua sustatzeko bideratutako gisa bereko programen bidez kontratatutako pertsonak. Aurreko ekitaldietan enplegua sustatzeko programen bidez Udal Elkarteak kontratatutako pertsonak hautaketa prozesuan parte hartu ahal izango dute, baina kontratatu ahal izango dira soilik beste hautagairik ez baldin badago. Baldintza hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatu eta informatuko du.

4. LAN-ESKAINTZAK ARGITARATU ETA KUDEATU

Bete nahi diren lanpostuen lan-eskaintza argitaratu eta ezagutzera emango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren webgunean eta Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean. Lan-eskaintza Urola Kostako Udal Elkarteak kudeatuko du (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren organismo kolaboratzailea da eta).

5. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Hautaketa prozesuan parte hartzeko aurkeztu behar dira eskabidea (oinarri hauen eranskinetako ereduen arabera) eta oinarri zehatzetan kasuan kasu eskatzen diren dokumentuak.

Dokumentazio hori honako helbidean aurkeztu behar da: Urola Kostako Udal Elkarteak, Sarrera Erregistroa (Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz).

Eskabideak eta dokumentuak aurkezteko epea hasiko da lan-eskaintza eta oinarriak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren webgunean eta Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean argitaratzen diren egunean eta **amaituko da urriaren 22an (14:00etan)**. Eskabideak eta dokumentuak aurkezteko ordutegia: 08:00-14:00

6. EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEA

Parte hartzeko nahiz baloratzeko merezimenduen **egiaztagiria ez dira aurkeztu behar** eskabidearekin batera, baizik eta aurrerago. Egiastagiri horiek aurkeztu beharko dira hautaketa prozesua amaitu eta kontratua edo izendapena egin aurretik. Beraz, proposatutako hautagaiek 3 laneguneko epea izango dute egiaztagiri horiek aurkezteko, azken emaitzak argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita.

Proposatutako hautagaiek aurkeztu beharko dituzten egiaztagiria kopia konpultsatuak izango dira. Nahi izanez gero, hautagaiek Udal Elkarteak bertan konpultsatu ahal izango dituzte dokumentuak, jatorrizkoa eta kopia aurkeztuta.

Hautagai batek ez baditu une horretan parte hartzeko baldintzak edo eskabidean adierazitako baldintza eta egoerak betetzen eta egiaztatzen, baztertuta geldituko da eta zerrendako hurrengoa kontratatzeko proposamena egingo da (betiere paragrafo honetan adierazten den eran egiaztagiria aurkezten baditu).

Lan-esperientzia egiaztatzeko aurkeztu behar dira batetik, bizitza laborala eta, bestetik, enpresako ziurtagiriak. Enpresa-ziurtagiriek argi eta garbi agertu behar dituzte honako datuak: lanpostuaren izena, kontratuaren iraupena eta lanaldia eta burututako eginkizunak. Horrela ez bada, Epaimahaiak erabakiko du balioetsi ala ez eta nola balioetsi. Enpresa-ziurtagiririk izan ezean, lan kontratuaren kopia ere baliokoa izango da, baina lanpostuaren eginkizunak zehazten baditu.

Autonomo gisa izandako lan-esperientzia egiaztatzeko honakoak aurkeztuko dira: lan-bizitza, autonomo altaren egiaztagiria, dagokion epigrafearekin, egindako zerbitzuen egiaztagiria (fakturak, enpresa ziurtagiriak...).

Lan-esperientzia egiaztatzeko aurkeztutako dokumentuek esperientziaren funtzio eta eginkizunak eta epeak ez badituzte argi eta garbi zehazten, Epaimahaiak ez du merezimendu hori baloratuko. Halaber, prestakuntza egiaztatzeko agiriak argi eta garbi adierazi behar dituzte prestakuntza-ikastaroaren izenburu, eduki eta iraupena.

7. LAN EGOERA ETA ERROLDA DATUAK EGIAZTATZEA

Ondoren zehazten diren eskatzailearen datuak Udal Elkarteak zuzenean egiaztatuko ditu, dagokion administrazioarekin harremanetan jarrita:

Lan-egoera: honako datu hauek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan egiaztatuko ditu zuzenean Udal Elkarteak, bere Orientazio Zerbitzuaren bidez:

- Lanbiden inskribatuta egotea, langabe gisa.
- Iraupen luzeko langabea izatea.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra/onuraduna izatea (RGI/DSBE).

Erroldatze-egoera: Udal Elkarteak eskatzailearen erroldatze-egoera egiaztatuko du dagokion udalarekin zuzenean harremanetan jarrita.

8. ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDAK

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Udal Elkarteak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak emango ditu argitara, Udal Elkartearen iragarkien taulan eta webgunean (<http://www.urolakosta.eus/eu/lan-eskaintzak>) eta baztertzeko arrazoiak adieraziko ditu.

Baztertutako pertsonen 3 laneguneko epea izango dute akats edo okerra zuzentzeko. Jarraian, Udal Elkarteak behin betiko zerrendak emango ditu argitara.

9. HAUTAKETA-PROZESUA

Hautaketa prozesuak bi fase izango ditu: alde batetik, merezimenduen lehiaketa eta, bestetik, elkarrizketa edota talde dinamika.

Nolanahi ere den, proiektuaren eskakizun teknikoak eta bete nahi diren lanpostuen profilak eskatzen dituzten konpetentziak kontuan hartuta, Epaimahaiak erabaki ahal izango du, beharrezko jotzen bada, lanpostu bateko edo batzuetako hautagaiei ariketa teoriko edo eta praktikoren bat egitea. Ariketa teoriko edo eta praktikoren bat egitea erabakitzen bada, honako oinarri hauek hartuko dira kontuan:

- Ariketa horrek (horiek) hautaketa-prozesu osoan lor litekeen puntu kopuruaren %50eko balioa izango du gehienez ere.
- Ariketa(k) derrigorrezko eta baztertzaile izango da(dira).
- Epaimahaiak erabaki ahal izango du ariketa eta elkarrizketak edota talde dinamika egun berean egitea. Horrela egiten baldin bada, bigarrena (elkarrizketa edota talde dinamika) kalifikatuko da lehenengoa (ariketa) kalifikatu ondoren eta ez zaie elkarrizketa edota talde dinamika kalifikatuko ariketa gainditzen ez duten izangaiei.

9.1. Merezimenduen lehiaketa

Merezimenduen lehiaketan baloratuko dira lanpostuaren egikizunekin lotura duten lan-erperientzia eta prestakuntza. Lanpostu bakoitzaren oinarri zehaztuta daude zehaztuta balorazio hori egiteko irizpideak eta puntuazioa.

Hautagaiak adierazitako lan-esperientzia eta prestakuntza-ikastaroek ezarritako irizpideekiko zer-nolako antza duen Epaimahaiak aztertu eta erabakiko du, eta egoki iriztitako zuzenketa faktoreak aplikatuko ditu, bai hilabete bakoitzeko eman beharreko puntu kopuruari dagokionez, bai lor litekeen gehienezko kopuruari dagokionez.

Ez da balioetsiko eskabidean zehazten ez den merezimendurik.

Epaimahaiak hautagaien merezimenduak baloratu eta behin-behineko emaitzak argitaratu egingo ditu. Hautagaiak 3 laneguneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko. Erreklamaziorik ezean behin-behineko emaitzak behin betiko bilakatuko dira. Erreklamaziorik bada, Epaimahaiak dagokiona erabaki eta behin betiko emaitzak onartu eta argitaratu egingo ditu (Udal Elkartearen webgunean).

9.2. Elkarrizketa edota talde dinamika

Merezimenduen balorazioaren fasea amaitutakoan, Epaimahaiak erabaki ahal izango du hurrengo fasera igaroko diren hautagaien kopurua mugatzea. Horrela erabakiz gero, deitutako lanpostu bakoitzeko gutxienez 3 hautagairi egingo zaie elkarrizketa edota talde dinamika teknikarien arloko zerrendetan, eta gutxienez 2 hautagairi peoien hautagaien zerrendan. Nolanahi ere den, elkarrizketatan edota talde dinamikan, eta egingo balitz ariketan ere, parte hartuko duten hautagaien kopurua mugatzea erabakitzen bada, ez da merezimenduen balorazioan puntu kopuru berbera eskuratu duten hautagaien multzorik hautsiko eta puntuazio berbera duten hautagaien multzo osoari egingo zaio elkarrizketa edota talde dinamika.

Horrekin batera, elkarrizketaren edota talde dinamikaren fasera igaroko diren hautagaien zerrenda egiteko kontuan hartuko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak jartzen dituen eta oinarri hauen atarikoan adierazita dauden baldintzak (kontratutako diren pertsonetatik 4 izatea emakumeak, 3 izatea DSBE/RGI jasotzaileak eta 2 izatea 55 urtetik gorako pertsonak).

Elkarrizketa edota talde dinamikaren bidez baloratuko da izangaiak lanpostuaren eskakizun eta eginkizunak burutzeko beharrezko diren gaitasun eta kompetentziak (hala nola, komunikazio gaitasuna, talde-lana, antolaketa eta plangintza...),

Elkarrizketa edota talde dinamika 15 puntu balioko ditu eta gainditzeko 8 puntu eskuratu beharko dira gutxienez (derrigorrezkoa eta baztertzailea da).

Elkarrizketa edota talde dinamika egiteko deialdia (egun, ordu eta lekua) Udal Elkartearen webgunean emango da jakitera (deialdi bakarra egingo da).

9.3. Lanbideren eskakizunak aplikatu

Epaimahaiak elkarrizketaren eta merezimenduen puntuak batu egingo ditu eta, ondoren, oinarri hauen atarikoan zehaztuta datozen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezartzen dituen baldintzak aplikatuko ditu, hala nola:

- Kontratatuko diren pertsona guztietatik 4 pertsona izango dira emakumeak.
- Kontratatuko diren pertsona guztietatik 3 pertsona izango dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak.
- Kontratatuko diren pertsona guztietatik 2 pertsona izango dira 55 urtetik gorakoak.

Lehendabizi, beraz, baldintza horiek betetzen dituzten eta hautaketa prozesuaren bidez puntu gehien dituzten hautagaiekin beteko dira lan-eskaintza honetako lanpostuak. Ondoren, eskaintako lanpostu guztiak betetzen ez badira, lan-esperientzian, prestakuntzan eta elkarrizketan eskuratutako puntuen batura hartuko da kontuan.

9.4. Emaitzak

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren baldintzak aplikatu ondoren, Epaimahaiak behin-behineko emaitzak onartu eta argitaratu egingo ditu eta izangaiek egutegiko 3 laneguneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko. Erreklamazioak idatziz aurkeztu behar dira, Udal Elkarteko sarrera erregistroan (Urdaneta bidea 6, Zarautz). Epe hori igaro ondoren Epaimahaiak behin betiko emaitzak onartu eta argitaratuko ditu. Erreklamaziorik ez bada behin-behineko emaitzak behin betiko bilakatuko dira, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe.

9.5. Azken emaitza, egiaztagiria aurkeztea eta izendatzeko proposamena

Aurreko paragrafoko erreklamazio epea amaitu eta behin betiko emaitzak onartu ondoren, Epaimahaiak behin betiko emaitzak eta puntuazioaren hurrenkeran lan-eskaintzako lanpostu bakoitzean aurrena diren hautagaiak kontratatzeko proposamena helaraziko dio Udal Elkarteko lehendakariari.

Halaber, gainerako hautagaiekin lan-poltsak eratzeko proposamena egingo dio (puntu gehien dituenetik gutxien dituenera), programak irauten duen bitartean gerta litezkeen hutsuneak betetzeko. Lan-poltsa horietan bereiz sailkatuko dira mota bakoitzeko lanpostuak.

Lan kontratuak edo izendapenak egin aurretik, proposatutako hautagaiek lehiaketan parte hartzeko baldintzak eta eskabidean adierazitako egoerak egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu behar dituzte, oinarri hauen 6. baldintzan (Egiaztagiria aurkeztea) ezarritakoaren arabera.

10. EPAIMAHAIIA

Honela osatuko da Epaimahaia:

Mahaiburu: Udal Elkarteko Prestakuntza eta Enpleguko arduraduna.

Epaimahaikide:

Udal Elkarteko Orientazio Zerbitzuko teknikari bat.

Udal Elkarteko Enpresa Arloko teknikari bat.

Udal Elkarteko Prebentzio teknikaria.

Udal Elkarteko Prospekzio teknikaria.

Udal Elkarteko Euskara eta Komunikazio Zerbitzuko arduraduna.

Idazkari: Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzailea.

Epaimahaiaren eginkizuna izango da hautaketa-prozesua bideratzea, oinarriotan ezarritakoaren arabera. Epaimahaiak ahalmena du oinarri hauek interpretatzeko eta oinarriotan zehaztu gabeko alderdiak erabakitzeko, oinarrietan zehazten denarekin bat etorritz. Bestalde, Epaimahaiaren eskariz, Epaimahaiaren parte hartu ahal izango dute deitutako lanpostuaren eginkizun eta ezaugarrietan adituak diren Udal Elkarteko teknikariek, betiere aholkulari gisa eta hautaketa-prozesuko atal eta eginkizun zehatzak burutzeko.

11. DEIALDIAREN ETA HAUTAKETA-PROZESUAREN INGURUKO INFORMAZIOA

Hautaketa-prozesu honen inguruko komunikazio eta jakinarazpenak (onartu eta baztertuen zerrendak, elkarrizketen deialdiak, emaitzak...) Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean emango dira argitaratuta: <http://www.urolakosta.eus/eu/lan-eskaintzak>

12. DATU PERTSONALEN BABESA

Izangaien datu pertsonalak tratatuko dira Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (2016/679 EB) ezarritakoarekin bat etorritz. Hona hemen datu-tratamendu horri buruzko informazioa:

Tratamenduaren arduraduna

Urola Kostako Udal Elkarte, IFZ G20392064
Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz, Tel. 943890808
ldzakaritz@urolakosta.eus www.urolakosta.eus

Datuak Babesteko Ordezkararen kontaktu datuak: dbo@urolakosta.eus

Tratamenduaren helburua: Udal Elkartearen giza baliabideen hautaketa prozesuak kudeatzea. Datu tratamenduan ez da erabaki automatizaturik hartuko eta ez dira perfilak egingo.

Gordetzeko epea: Datu tratamenduaren objektu den hautaketa-prozesua amaitu arte edota horrek eragindako zuriketa epealdiak amaitu arte.

Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa: Tokiko administrazioaren araubidea, Udal Elkartearen Estatutuak, mankomunatutako udalek eskuordetutako eskumenak eta funtzio publikoaren araubidea.

Datuen jatorria: interesdunak

Datu kategoriak: Tratamendu honetan datu kategoriatu hauek tratatzen ditugu: identifikazio datuak, helbide eta harremanetarako datuak, datu akademiko eta profesionalak eta egoera sozioekonomikoari buruzko datuak.

Hartzaileak: Hautaketa prozesua kanpoko erakunde publiko baten diru-laguntzari esker bideratu bada, datu pertsonalak lagako zaizkie programa hori garatzeko diru-laguntza eman duten erakunde publikoei, diru-laguntzaren zuriketa egiteko beharrezkoa den heinean. Halaber, hautaketa-prozesuen bidez sortutako lan-poltsetan dauden hautagaien datuak (soilik izen-abizenak, titulazioa eta harremanetan jartzeko datuak) laga ahal izango zaizkie beste administrazio publikoei, beren lan-eskaintzak hautagai horiei egiteko. Ez da datu horien transferentziarik aurreikusten hirugarren herrialdeetara.

Pertsonen eskubideak: Interesdunek eskubidea dute datuak atzitzeko eta zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko edo tratamendua murrizteko eskatzeko, Datuak Babesteko Ordezkararen bidez. Horrekin batera, eskubidea dute Kontrol Agintaritzari (Datuak Babesteko Euskal Bulegoari) erreklamazioak aurkezteko.

13. ERREKUTRSOAK

Interesatuak deialdiaren, bere oinarrien eta deialdiak berak zein epaimahaiaren jardunak eragin ditzakeen ekintza administratiboen aurka jo dezakete, urriaren 1eko Herri Administrazioen ohiko Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legeak xedatutako kasu eta moduetan.

EGINBIDEA:

Eginbidea, nik, Urola Kostako Udal Elkarteko idazkari kontu-hartzaileak egina, Zarautzen, 2018ko urriaren 8an, jasota uzteko diru-laguntzen oinarri hauek onartu dituela Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariak, 2018ko urriaren 8ko ebazpenaren bidez.

OINARRI ZEHATZAK

A. TEKNIKARIA, LANPOSTU BERRIEN PERFILAK LANTZEKO

14. PARTE HARTZEKO BALDINTZA ZEHATZAK

Lanpostu berrien perfilak lantzeko teknikaria hautatzeko prozesuan parte hartzeko honako baldintza zehatzak bete behar dira, oinarri orokorretan zehaztutako baldintzak betetzeaz gain:

- Honako ikasketa tituluaren jabe izatea (edo jasotzeko eskubideak ordainduta izatea), hala nola: Lan harreman eta giza baliabideetako gradua (edo baliokidea) edota Humanitatea eta enpresak gradua (edo baliokidea)
- Euskararen 3. hizkuntz eskakizunaren titulu edo ziurtagiriaren jabe izatea (edo baliokidea).
- Gida baimena.

Baztertzeko egoerak zein diren jakiteko, ikus deialdi honen 3. oinarriko amaierako "Oharra".

15. ESKABIDEAREKIN AURKEZTU BEHAR DIREN DOKUMENTUAK

Lanpostu berrien perfilak lantzeko teknikaria hautatzeko prozesuan parte hartzeko aurkeztu behar dira honako dokumentuak:

- Eskabidea, behar bezala beteta, oinarri hauetako I. eranskinetako ereduaren arabera egina.
- NANren fotokopia.
- Curriculum.

16. ESKABIDEEN BALORAZIOA

Aurkezten diren eskabideak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Balorazio irizpideak	Puntuak
Pertsona ezaugarriak eta gizarte egoera	
35 urtetik beherakoa edo 55 urtetik gora	10
RGI	20
Emakumea	30
Lan esperientzia (lanpostuaren eginkizunekin zuzenean lotura duena)	
1 urte - 3 urte	2
> 3 urte	5
Prestakuntza (lanpostuaren eginkizunekin zuzenean lotura duena).	
1 puntu, 250 ordu edo gehiagoko ikastaro bakoitzeko (gehienez 2 puntu)	2
0,5 puntu, 100-249 ordu arteko ikastaro bakoitzeko (gehienez 2 puntu)	2
0,25 puntu, 20-99 ordu arteko ikastaro bakoitzeko (gehienez puntu 1).	1
Hizkuntzak	
Euskararen laugarren hizkuntz eskakizuna (edo baliokidea)	0,5

17. EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEA, IZENDATU AURRETIK

Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, kontratatuko den hautagaiak honako egiaztagiria (kopia konpultsatuak) aurkeztu beharko ditu, oinarri hauen 6. baldintzan (Egiaztagiria aurkeztea) ezarritakoaren arabera:

- Eskabidean adierazitako ikasketa titulazioen egiaztagiria
- Euskararen 3. hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria (edo baliokidearena).
- B gida baimena.
- Eskabidean adierazitako lan esperientzia egiaztatze agiriak (bizitza laborala, enpresa ziurtagiriak...).
- Eskabidean adierazitako prestakuntza egiaztatze agiriak.
- Oinarri hauetako 3.8 ataleko baldintzaren bat egiaztatze agiriak.

OINARRI ZEHATZAK

B. ENPRESA TEKNIKARIA, KULTUR ETA SORMEN INDUSTRIEN ARLOKO ENPRESEN MAPEOA

18. PARTE HARTZEKO BALDINTZA ZEHATZAK

KSI alorreko eragileen identifikaziorako teknikaria hautatzeko prozesuan parte hartzeko honako baldintza zehatzak bete behar dira, oinarri orokorretan zehaztutako baldintzez gain:

- Honako ikasketa tituluaren jabe izatea (edo jasotzeko eskubideak ordainduta izatea), hala nola: Administrazioa eta kudeaketa goi mailako zikloa (edo baliokidea).
- Euskararen 3. hizkuntz eskakizunaren titulu edo ziurtagiriaren jabe izatea (edo baliokidea).
- Gida baimena.

Baztertzeko egoerak zein diren jakiteko, ikus deialdi honen 3. oinarriko amaierako "Oharra".

19. ESKABIDEAREKIN AURKEZTU BEHAR DIREN DOKUMENTUAK

Zerbitzu arloan enplegu gune berriak identifikatzeko lanean arituko den teknikaria hautatzeko prozesuan parte hartzeko aurkeztu behar dira honako dokumentuak:

- Eskabidea, behar bezala beteta, oinarri hauetako II. eranskineko ereduaren arabera egina.
- NANren fotokopia.
- Curriculumak.

20. ESKABIDEEN BALORAZIOA

Lan arriskuen prebentzioko teknikaria hautatzeko lehiaketara aurkezten diren eskabideak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Balorazio irizpideak	Puntuak
Pertsona ezaugarriak eta gizarte egoera	
35 urtetik beherakoa edo 55 urtetik gora	10
RGI	20
Emakumea	30
Lan esperientzia (administrazio eginkizunekin zuzenean lotura duena)	
1 urte - 3 urte	2
> 3 urte	4
Lan esperientzia (kultur eta sormen alorreko enpresetan)	
1 urte - 3 urte	0,5
> 3 urte	1
Prestakuntza (lanpostuaren eginkizunekin zuzenean lotura duena)	
1 puntu, 250 ordu edo gehiagoko ikastaro bakoitzeko (gehienez 2 puntu)	2
0,5 puntu, 100-249 ordu arteko ikastaro bakoitzeko (gehienez 2 puntu)	2
0,25 puntu, 20-99 ordu arteko ikastaro bakoitzeko (gehienez puntu 1).	1
Hizkuntzak	
Euskararen laugarren hizkuntz eskakizuna (edo baliokidea)	0,5

21. EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEA, IZENDATU AURRETIK

Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, kontratatuko den hautagaiak honako egiaztagiriak (kopia konpultsatuak) aurkeztu beharko ditu, oinarri hauen 6. baldintzan (Egiaztagiriak aurkeztea) ezarritakoaren arabera:

- Eskabidean adierazitako ikasketa titulazioaren egiaztagiria
- Euskararen 3. hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria (edo baliokidearena).
- B gida baimena.
- Eskabidean adierazitako lan esperientzia egiaztatzeke agiriak (bizitza laborala, enpresa ziurtagiriak...).
- Eskabidean adierazitako prestakuntza egiaztatzeke agiriak.
- Oinarri hauetako 3.8 ataleko baldintzaren bat egiaztatzeke agiriak.

OINARRI ZEHATZAK
C. MANTENTZE-LANETARAKO PEOIAK (8)

22. PARTE HARTZEKO BALDINTZA ZEHATZAK

Mantentze-lanetarako 8 peoien hautaketa-prozesuan parte hartzeko oinarri hauen 3. baldintzan (Baldintza orokorrak lanpostu guztientzat) ezarritako baldintzak orokorrak bete behar dira.

Ez da lan-esperientzia edo bestelako baldintza zehatzik bete behar.

Baztertzeko egoerak zein diren jakiteko, ikus deialdi honen 3. oinarriko amaierako "Oharra".

23. ESKABIDEAREKIN AURKEZTU BEHAR DIREN DOKUMENTUAK

Mantentze-lanak egiteko peoien hautaketa prozesuan parte hartzeko aurkeztu behar dira honako dokumentuak:

- Eskabidea, behar bezala beteta, oinarri hauetako III. eranskineko ereduaren arabera egina.
- NANren fotokopia.
- Curriculuma.

24. ESKABIDEEN BALORAZIOA

Mantentze lanak egiteko peoien lanpostuak betetzeko lehiaketara aurkezten diren eskabideak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Balorazio irizpideak	Puntuak
Pertsona ezaugarriak eta gizarte egoera	
35 urtetik beherakoa edo 55 urtetik gora	10
RGI	20
Emakumea	30
Lan esperientzia, lanpostuaren eginkizunetan	
< 1 urte	1
1 urte - 3 urte	2
> 3 urte	4
Prestakuntza	
<ul style="list-style-type: none"> • Laneko arriskuen prebentzioa (atal honetan gehienez 0,50 puntu eskura daitezke): <ul style="list-style-type: none"> ○ Laneko arriskuen prebentzioan (LAP) oinarrizko ikastaroa (30h): 0,25 puntu ○ Laneko arriskuen prebentzioan (LAP) eraikuntzako oinarrizko ikastaroa (60h), LAP erdi-mailako prestakuntza edota LAP goi-mailako prestakuntza: hiru hauetako bat izanez gero 0,50 punturekin baloratuko da. 	0,50

<ul style="list-style-type: none"> • Altuerako lanak, lan ekipoak, instalazioei buruzko prestakuntza (elektrizitatea, iturgintza,...): > 150 orduko ikastaro bakoitzeko 0,25 puntu eta gehienez puntu 1. 	1
<ul style="list-style-type: none"> • Altuerako lanak, lan ekipoak, instalazioei buruzko prestakuntza (elektrizitatea, iturgintza,...): 75- 149 orduko ikastaro bakoitzeko 0,25 puntu eta gehienez 0,75 puntu. 	0,75
<ul style="list-style-type: none"> • Altuerako lanak, lan ekipoak, instalazioei buruzko prestakuntza (elektrizitatea, iturgintza,...): 8-74 orduko ikastaro bakoitzeko 0,25 puntu eta gehienez 0,75 puntu. 	0,75

25. EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEA, KONTRATATU AURRETIK

Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, kontratatuko diren hautagaiek honako egiaztagiria (kopia konpultsatua) aurkeztu beharko dituzte, oinarri hauen 6. baldintzan (Egiaztagiria aurkeztea) ezarritakoaren arabera:

- Eskabidean adierazitako lan esperientzia egiaztatze agiriak (bizitza laborala, enpresa ziurtagiriak...).
- Eskabidean adierazitako prestakuntza egiaztatze agiriak.
- Oinarri hauetako 3.8 ataleko baldintzaren bat egiaztatze agiriak.

26. KONTRATATU AURREKO PRESTAKUNTZA: PEOIAK

Eskualdeko guneen mantentze-lanak egiteko peoi lanpostuetarako proposatutako 8 pertsonen prestakuntza ikastaroa egingo dute laneratu aurretik. Horiekin batera, ikastaroa egin beharko dute lan-poltsako hautagaiek (lan-poltsaren hurrenkeran), orotara 12 laguneko taldea osatuz.

Ikastaroa egiten duten pertsonen “eraikuntza sektoreko lan-hitzarmeneko lehen eta bigarren mailako zikloen” homologazioa eskuratuko dute. Ikastaroaren iraupena bi astekoa izango da.

Lan kontratua gauzatzeko derrigorrezkoa izango da prestakuntza ikastaroa osorik eta probetxuz egitea eta, dagokion azterketa gainditzea. Hautagaien batek baldintza hori betetzen ez badu, ikastaroa egin dutenen zerrendara joko da, lan-poltsako hurrenkeran.